# BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

581. zkia.
XIV. urtea
2006ko abuztuaren 23a



## San Bartolome jaixetan...

# eutsi goixari!

[ ERREPORTAJEA ] KOLDO LIZARRALDE • [ JAIXETAN ] MUSIKAZ BLAI

# Belaustegi Baserria JATETXEA




Zatoz San Bartolomeetarako
prestatu dugun
menu berezia
dastatzera!

San Migel gaina • 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 743 102 • Faxa: 943 743 641
Erreserbak 943 74 31 02 telefonoan



**IZAN ZIRELAKO GARA**
**GARELAKO IZANGO DIRA**
**JAIETAN ERE EUSKALDUN**

EUZKO GAZTEDI

Elgoibarko **EGI**


ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!
ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era
San Frantzisko, 43 - 1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR


Gabi
jatetxea
Bar Gabi Jatetxea
Ondo pasa jaiak!
Ez galdu
San Bartolomeetarako
prestatu dugun
menua!
Nafarroa enparantza • Tel.: 943 74 12 30



# ZOZOAK BELEARI...



**ALAITZ VIVES**

Zozoak beleari begiratzen dionean udak berea duen opor usaina dut sudurrera itsatsita. Denborak beste erritmo bat du. Patxadatsuagoa eta aldi berean biziagoa; bizia dario udak-eta! Opor haundiak ziren hauek txikitan. Aste Santukoak, ordea, opor txikiak. Horrela neurtzen nituen urtaroen joan etorriak. Gabonetako oporrak, opor txikiak eta opor haundiak. Aurreko egun batean arratsaldez Saturrarango hondartzan gizon emakume bikote baten ondoan zabaldu nuen toalla. Ez nuen hasieran haiengan ezer berezirik nabari. Emakumeak fruta atal bat eskuan zuela gizonezkoari eskaini zion arte. Ingeleses ari ziren aizu! Orduan, belarriak erne, begiak ireki eta toallan eseri nintzen. Ingurura begiratu eta ohiko familia eta lagun taldeez gain... hantxe! Esnearen pareko azal zuriak nere begien aurrean argi gorria zirudien. Neska bikotea, zein baino zein azal zuriagoarekin. Ez nituen haien hitzak entzuten baina... halaxe ziren, turistak aizu! Tontakeria irudituko zaizu agian (halaxe da-eta,) baina atentzioa eman zidan.

Saturrarango hondartzan udako larunbat eta igandetan, aita, ama, ahizpa eta laurok, toallak, patata tortilla, kubua eta rastrillua, kiskillerua eta koltxoneta urdin eta gorria hartuta egun pasa joaten ginenean, oñatiarrez egiten zutenak entzuten genituen asko jota. Eta lekutan dago Oñati, Alain!

> **«Saturraranen oñatiarrez egiten zutenak entzuten genituen»**
>
> ALAITZ

> **«Orain turistek Saturraranen toaila gehiago zabaltzen dute»**
>
> ALAIN

**ALAIN ULAZIA**

Ni ez naiz ba hain hondartza zalea Alaitz. Aurten arroketan arraintxoak ikusteko buzeoko betaurrekoak jirau ditut, baina uretatik ateratakoan gerizpean egotekotan, han lapa eta karramarro artean, Kaloportu inguruan edo. Bestela, tourra ikusiz siesta botatzea atsegin dut sargori egunetan, egongelako pertsianak jaitsita eta limoi ur botilakadarekin butakan luze.

Hala nengoela (eta Maio txakalaldiak jota, uzkalduta), Mendarozabalko plazan indigena hegoamerikar baten irudia ikusi nuen pareko balkoian, laugarren pisukoan. Hirugarrenekoan ere badakit hegoamerikarrak bizi direla. Amak esan zidanez, bigarrengoa ere indio fin horiena ei da. Ia eraikuntza osoa eurena beraz. Alboko eraikuntzan, gure etxearekin muga eginez, Bart mutiko marokoarra bizi da bere familiarekin. Lehen Mendarozabalen bizi zirenak zentrora joan dira, edo goiko txaletetara, etxe berri, haundi eta distiratsuagoetara. Mendarozabal ote da auzo periferiko ahaztua? Herriko enparantza eta txaletetan bildu ote da gure herriko glamour urria? Gezurretakoa al da etorkinen aurrean jarritako harresia?

Turistek Saturraranen toaila gehiago zabaltzen dute orain bake itxuradun garaiotan. Baina itxaron, bertsolari beltzak eta alkate indigenak ditugunean, dena benetakoagoa izango da. Eta independenteagoa Euskal Herria.

> “HERRI BAT GARELAKOAN GAUDE ETA, EGIA ESATEKO, APENAS IRISTEN GARA PAISAIA IZATERA”
>
> Nicanor Parra

## Vicente postaria

"Zuek euskaldunak zerate? Ni elgoibartarra naiz" esanez hartu gintuen gizon beltzaran harek. Baina euskaraz ibili arren, azentu andaluziarrak nabarmen lagatzen zauan gizon haren jatorrixa.

Laster ezagutu gendun jatorriz Jaendarra dan Vicente Moreno, gaur egun Chiclanako "Rana Verde" kanpigneko jabe eta langilea. Bere kanpignean elgoibartar bat zauala jakin zauanian, gazte denborako oroimen guztixak etorri jakozen burura eta berbaldi luzietan, haietako asko azaldu zizkigun.

Vicente 1966-1971 urtien inguruan Elgoibarren bizi izan zan, postari lanetan.

Harrigarrixa iruditxu jakun ezagutzen zauan jende kopuru guztixa eta azaltzerakuan sentitzen zauan emoziñua. Are gehixau bere etxe sarreran zintzilakauta zaukan Elgoibarko armarrixa ikustiak, Ikastolako grabatu eta guzti.

Idatzi honen bitxartez jasotako arreta eskertu nahi diogu. Eta berak elgoibartarrak gogoan ditxuan bezela, elgoibartarrek eta batez ere, garai hartan bere lagun izan zian guztixek Vicente gogoan izatea espero degu.

Gorantzixak danei bere partez!

**Mikel Iturrate eta Itziar Gurrutxaga**

## komikia

*Hil da gero...*




Kokoe 068

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]

barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea: Elgoibarko Izarra

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iriondo, Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.565 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## [AKORDATZEN NAIZ]



### JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

# «San Bartolomiak»

Kuadrillan "topera" ibiltzen giñan San Bartolomietan. Ahal gendun egun guztixetan juergia egitten gendun, baiña gaur egunian modan daguan gaupasa hori nik ez dot sekula egiñ. Asko jota, goizeko laurak-bostak aldera etxera juten giñan.

Deskantsau, dutxau eta berriz ere kalera egoera onian urten. Zezenera ganoraz urtetzia gustatzen jatan. Ez naiz asko ibilli sokamuturrian: pixkat urrutittik begiratzen nion, etxatan gerturatzia gustatzen.

Erromerixetan ere dantza gutxi egitten gendun. Gure kuadrillan tabernaz taberna ibiltzia, bazkaltzia, kantatzia eta parranda egittia gustatzen jakun.

Lagunartian ibiltzen giñan. Batzuk koruan ibilli giñan, eta kantuan ibiltzia gustatzen jakun. San Bartolomiak jai haundixak izaten ziran. Sekulako anbientia egoten zan, jende asko etortzen zan kanpotik, eta bertakuak ere, oporretara jun biharrian, herrixan geratzen giñan jaixetan. Oso ondo pasatzen gendun.



## [GURE BERBAK]

### *San Bartolomiak*

Gaurko, San Bartolomietako bi testu jaso ditut, Jabi Leonen *Elgoibartarren esanetan* liburutik.

*"Txiki eguna zan San Bartolome jaixetatik gehixen gustatzen zitzatana. Gizonak eta emakumiak, bakoitza bere aldetik ibiltzen ziran. Gizonezkuak tabernaren batian bazkaltzen zeben, eta gabian alkartu egitten giñan. Lehen, emakumiok ez gendun bazkaririk egitten, etxian bazkaltzen gendun, eta gero, arratsaldian ertetzen gendun lagunekin. Kalejiran ere ez ziran gizon eta emakumiak alkarrekin juaten. Txiki eguna oso gogoko nauan. Zezena amaittu ostian, koadrillak mahatsa erosten zeben, San Frantzisko itturrixan jarri eta bertan jateko. Egixa esan, koadrilla batzuetan mahats-aliak botatzen ziuezen alkarri, baiña ez zan gaur egun bezalakua. Oiñ, ura, ardaua, arrautzak eta iriña".* Teresa Aginaga Madariaga

*"Elgoibarko jai onenak San Bartolomiak ziran. Fama asko zauken. Hasieran hiru edo lau egun izaten ziran, baiña gero astebetera luzau zittuen. San Bartolomietan kanpaiak izaten ziran sokamuturra hasi baiño lehen; gero, San Bartolome egunian Bandian kontziertua izaten zan, eta mezia. Jeneralian, banda militarra etortzen zan orduan, Burgosekua: "de categoria" zan. Profesionalak ziran. Egun guztia instrumentueri begira. Oso giro ona egoten zan txikiteuan. Gaiñera, nola lehen jendiak kantau egitten zaban asko... Oingo gaztiak ez debe kantatzen. Sokamuturra ere egoten zan, eta enbolauak Plaza Txikixan. Gabian musikia zaguan. Eta tiobibuak, norixia eta holakuak".* Ramón Maiztegi Iriarte

*Jesus Mari Makazaga*

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Gipuzkoako Foru Aldundia
DANOBAT kutxa kondia GOITI GRUPO DANOBAT ESTARTA GRUPO DANOBAT

Iritsi dira aurtengo San Bartolomeak.

## San Bartolomeetan egunez ala gauez ibiltzen zara gehiago?

**AITOR MURUA**
Ikaslea
11 urte



“Egunez gauza gehiago dago, eta hobeto pasatzen dut. Txiki Eguna gustatzen zait gehien. Gauetan ere ateratzen naiz lagunekin kontzertuak ikustera.”

**ANDER IZAGIRRE**
Ikaslea
17 urte



“Gauez eta egunez. Goizez sokamuturrean ibiltzea gustatzen zait eta gauez parranda egitea. Gorputzak oraindik aguantatzen du bietan ibiltzeko”

**KURUTZ CASTRILLEJO**
Metaleko langilea
48 urte



“Egia esan ez zaizkit gehiegi gustatzen Elgoibarko jaiak. Egunez eta gauez ibiltzen naiz, bietan egoten da anbientea. Txosnetako giroa gustatzen zait gehien.”

**FLORI MAESO**
Administraria
43 urte



“Egunaren arabera. Txiki Egunean adibidez, egunez ibiltzea gustatzen zait eta Gazteen Egunean gaueko kontzertuak ikustera ateratzen naiz.”


IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Ondo pasa jaiak!
Makina bereziak
Albitxuri, 1
3. pabiloia, K-L
Tel.: 943 74 44 66
Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net
www.ihardun.net



Muruamendiaraz
ELGOIBAR
Jai gozo-gozoak
herritar guztioi!
MURUAMENDIARAZ gozotegia · San Bartolome, 34-35 · Tel. 943 740 345




Zure inbertsioak
bideratzen ditugu
ZURE ERAGINKORTASUNERAKO ZUBIA
MAPFRE
INVERSIÓN
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
San Frantzisko, 40 • Tel.: 943 74 05 82 / 943 74 14 04
Faxa: 943 74 17 07 • patxiza@mapfre.com

# MERKATU PLAZA

## *Uste duzuna baino gehiago!*



**Amaia** FRUTADENDA



**Arantxa** eta **Marian** FRUTADENDA



**TXILARRE** BARAZKIAK



**IBARRE** OKINDEGIA



**FRAILE** HARATEGIA



**MARI** HARATEGIA



**Amparo** HARATEGIA



**M. Angeles** FRUTADENDA



**TXIRIBOGA** TABERNA



**Zabala** FRUTADENDA



**Zabala** URDAITEGIA eta ARDANDEGIA

*San Bartolome jai zoriontsuak!*

AIRE LIBREKO MARRAZKI LEHIAKETA

# Jaiak eta musika irudikatu beharko dituzte paperean Marrazki Lehiaketako partaideek





Gurutze Gorriko Gaztedia eta Zuhaitz Aisialdi Taldeak antolatzen duten Aire Libreko Marrazki Lehiaketa arrakastatsuan "Jaiak eta Musika" gaiaren inguruan marraztu beharko dute izena ematen duten gaztetxoek.

Umeen Eguna (irailak 3), jaietako azken eguna izango denez, ideiak mamitzen joateko jaietan zehar bost zentzuak adi edukitzea komeni zaie. Irudimen faltaren kexurik behintzat ez da izango.

Ohi duten legez, 11:30-12:15 bitartean eman ahalko dute izena parrokiako arkupeetan. Adi ordutegiari, esandako ordutik aurrera ez baita inor onartuko. Eguerdiko 12:30ean hasiko da lehiaketa arkupeetan bertan. Hiru adin talde bereiztu dituzte antolatzaileek: 6 urtera arte; 7 urtetik 10 urtera arte eta 11 urtetik 14 urtera artekoak. Marrazki guztiak 14:00etan jasoko dituzte.

Ordu berean hasiko da haurrentzako bazkaria. Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du, baina edariak eta postreak antolatzaileek jarriko dituzte. Marrazki Lehiaketako sari banaketa, berriz, 18:00etan egingo da Plaza Handian.

ETXEPE MEKANIZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
LAN BEREZIAK
Ibaitarte Industrialdea, A2
Tel.943 74 12 97 - 74 06 64
Faxa 943 74 43 21
e-posta: etxepe@etxepe.com
Web orria: www.etxepe.com

Gloria okindegia
Upai Zaharra, behea
Tel.: 635 74 71 45

Gorbea TABERNA
Jai zoriontsuak!
Santa Ana, 10 • Tel: 943 74 05 80

USATORRE Taberna
San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99
Jai zoriontsuak igaro!

# KOLDO LIZARRALDE IDAZLEA

# «Elgoibarko irin errotak armagintzara nola egokitu ziren azaltzen dut `Uraren Indarra´ liburuan»



*Gizakiak ura behar-beharrezkoa du bizirauteko, baina gizateriaren garapenean ere funtsezkoa izan da ura. Urak gure bizitzeko moduan izan duen eta izaten jarraitzen duen indarra erakutsi nahi izan du Koldo Lizarraldek "Uraren Indarra" liburuan. Irin errotak nola bihurtu ziren arma arinen kanoiak zulatzeko makina kontatzen du, besteak beste, liburu honetan. Atzo, hilak 22, egin zuen liburuaren aurkezpena eta egilearekin izandako solasaldi honetan liburuaren gaineko nondik norako batzuk jaso ditugu.*

**► "Uraren Indarra". Zer aurki dezakegu idatzi duzun azken liburuan?**

"Elgoibar eta bere errotak" (2001) liburua idatzi nuenean, Elgoibarren izan diren ibaiko 24 irin errotei buruz berba egiten nuen. Informazioa topatzen ari nintzela, ordea, askotan egiten nuen topo 'kanoiak zulatzeko aparatu' delako batzurekin. Gehiago arakatu, eta errota haien jabeetako zazpik, XVII-XIX. mendeen artean, arma arinen kanoien zulaketarako makinak jarri zituztela errotetan jakin nuen. Elgoibarko irin errotak armagintzara nola egokitu ziren ezagutzera ematea interesgarria iruditu zitzaidan.

**► Hortaz, irin errotetan armak egiten hasi ziren!**

Bai, halaxe da. Gerra eta liskarrak amaitezinak ziren garaian, irin errotetan aurkitu zioten irtenbidea arma eskariari. Errotaren instalazioak aprobetxatu eta zailtasun handirik gabe zulaketa prozesua ezarri zuten. Sistema hau 'Ingenio' deitua izan zen. Armen beharra agortzen zenean, berriz, zereal aleak ehotzeko prestatzen zuten ostera ere.

**► Zer zen, zehazki, kanoiak zulatzeko makina bat?**

Fusil baten kanoiaren arima, barrukaldea, neurri zehatzetan laga behar zen, hau da, jaurtigaia edo bala eror ez zedin, baldintza perfektuan utzi behar zitzaion arima. Errotak pixka bat egokituz, eta uraren indarraz baliatuz, arma luzeen kanoien barrenak zulatzeko makinak asmatu zituzten gure zaharrek. Barrena batek egiten zituen errektifikadore lanak. Alegia, kainoiaren barrualdea, arima, zehatz mehatz leuntzen zuen, beharrezko diametroan laga arte. Garaiko errota batek 50-60 erreboluzioko in-



«Herriko zazpi errotek zituzten kanoiak zulatzeko makinak»

darra eman zezakeen, baina barrena lanak indar eta abiadura gehiago eskatzen zuenez, pinoi, palanka, uhal eta poleaz osatutako tramankulu bat asmatu zuten.

**► Zenbat kanoi zula zitzaketen egun bakarrean?**

Eguneko kanoi baten barrenatua egin zezaketen. Egungo makina batek bi minutu beharko lituzke. Krisialdia, elektrizitatea eta makina berrien sorrerarekin iritsi zen XIX. mende hasieran.

**► Ez da 'Ingenio' hauen aztarna askorik iritsi gaurdaino, ezta?**

Tamalez halaxe da. Ez dago aztarnarik, ez dut osorik zegoen aparaturik aurkitu, eta ikerketaren oztopo nagusia izan da. Hortaz, hipotesiekin lan egin behar izan dut eta neurea plazaratu, noski. Ikertu ditudan datuetan oinarrituz, kanoiak zulatzeko makina hauek nolakoak izango ote ziren azaltzen saiatu naiz. Dena dela, liburu honetan aztertzen den bezain sakon inon ez dela gai hau aztertu uste dut.

**► Nondik ateratzen da gai hauetarako informazioa?**

Gipuzkoako Protokoloen Agiretegi Historikoa (Oñati), Madrileko Artxibo Nazionala, Valladolideko Chancilleria eta Udal Artxibategia izan dira nire informazio iturriak.

**► Armak egiteko zerabilten prozesu guztiaren berri ematen duzu.**

Bai, burdin minerala Somorrostroko mehategietatik ateratzen zutenean hasten zen prozesua. Ondoren, itsasuntziz ekartzen zuten lehengaia Debaraino. Alazainak gilarik gabeko ontzietan iristen ziren bertaraino, Ala deituriko kilarik gabeko ontzi luze eta estuetan. Pertika edo makila luze batekin, Veneziako Gondoleroen gisa, gidatzen ziren ontziok Deba ibaian gora, Altzolako ibaiko porturaino. Minerala, idiek tiratutako gurdietan eramaten ziren burdinoletara. Hauetan eta errotetan lan egiten zuten pertsonen egunerokoa jasotzen ere ahalegindu naiz, eta baita zulaketarekin lotutako lanbideak ere: alazainak, gurdizainak, ikazkinak, olagizonak, kanoigileak eta barrenariak. Erroten jabeak eta langileak nor izan ziren ere azaltzen dut. Saturioko errota, Bergarako Santisima Trinidadeko mojen eskuetara nola iritsi zen, esaterako. Bitxia; mojak armagintza prozesuan parte hartzen!

**► Zenbat errota zeuden Elgoibarren?**

Zazpi errotek zituzten kanoiak zulatzeko makinak: Basarte, Andikano, Kalebarren, Goikoerrota, Ibarra, Unastegi eta Saturio. Lehenbiziko aipamena Basarteko errotaren gainekoa da, 1628an, eta azkenekoa, berriz, Saturioko errotarena, 1872an. Zabalkunde eta jarduera handiena XVII. mendearen erdialdean izan zuten, XVIII. mendeko azken hamarkadara arte. Deba ibarrean Arrasaten, Bergaran, Eibarren, Ermuan eta Plaentxin ere bazeuden, baina Mendaro, Deba eta Mutrikuko errotek ez zuten kanoiak barrenatzeko aparailurik erabiltzen.

**► Ba al zegoen nabarmentzen zen errotarik?**

Bai, Andikano baserria dagoen lekuan zegoen Andikanoko barrena. Hamabost lagunek lan egiten zuten bertan. 1834ko ufalak suntsitu zuen eraikina. Ezagutzen diren ufalik bortitzenetakoa izan zen, Deba ibar guztian eragin zituen kalte handiak. San Bartolome parrokiako atarian ikus daiteke ura noraino igo zen. San Antonen irudiaren behatz parean dago marka.

«Ez dut osorik zegoen aparaturik



KARTEL LEHIAKETA

# Mikel Cornejok irabazi du aurtengo San Bartolome jaietako kartel lehiaketa

Mikel Cornejoren lanak iragarriko ditu 2006ko San Bartolome jaiak, eta programazioaren azalean ere, bere irudia joango da. "San Bartolome jaietako elementuak sartu nahi nituen, baina betiko topikoetatik apurtxo bat aldenduz, ez nuen nahi eliza edo sokamuturra besterik gabe sartzea" adierazi digu Mikelek. Diseinu Grafikoaren alorrean lan asko eginikoa da Mikel, eta marrazkia ordenagailuz egin duela esan digu. 500 euroko saria jasoko du Mikel Cornejok, eta oso pozik dagoela aitortu digu: "500 euro? 300 zirela uste nuen! Hau sorpresa! Badaukat diru hori non gastatu!". Duela bost edo sei urte ere, hartu zuen parte Mikelek lehiaketa honetan, baina denbora faltagatik, azken urteotan ezin izan du parte hartu. Aurtengo lehiaketa irabazteak, datozen urteetan ere parte hartzeko animuak eman dizkio.

Udaleko Kultura Sailetik jakinarazi digutenez, aurtengoan 14 lan aurkeztu dira Kartel Lehiaketara. Aurreko urteetan baino partehartze handiagoa izan da, beraz, eta epaimahaikideen iritziz, maila oso altua egon da aurtengoan. 250 euroko sari berezia Jose Manuel Esnal Urdanpilletak jaso du.






## Umeen kartel lehiaketa

Azken urteotan bezala, aurten ere jende gutxik hartu du parte umeen kartel lehiaketan. Hala ere, partaidetza iazkoa baino zertxobait altuagoa izan da. Kultura Sailetik jakinarazi digutenez, lan guztiak izan dira sarituak: Maria Jimenez, Nerea Bastida, Lide Baz, Maria Ruiz de Gauna, Itxaso Rodriguez, Gorka Baz, Lucía Bilbao, Ibon Goikoetxea, Itziar Aldalur eta Nora Bastida. Sari banaketa gaur, San Bartolome bezpera eguna, arratsaldeko 20:30ean egingo da Udaleko Pleno Aretoan.

LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11
IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA
Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!
Zatoz informazio eske!

Alfredo Landa
686 262 244
E-posta: alfredolanda@hotmail.com
Txinako medikuntza tradizionala
Akupuntura • Sendabelarrak • Tuina masajea
Gaixotasunen tratamendua • Traumatismoak • Minak
Edergintza • Obesitatea • 5 zaporetako dietak
Osasunerako ariketak • Chi Kung
Kontsulta: Goiz eta arratsaldez
Astelehenetik - Ostegunera
Juan de Ajuriaguerra 10 behea • BILBO
Ostirala
Urbitarte, 11-2 • ELGOIBAR

Netto
hipermercado

# ¡¡Familia osoarentzako hipermerkatua !!






Markarik oneneko eta kalitaterik handieneko produktuak dituzu eskura gure 28 sailetan. Netto Hipermerkatuan aurkituko duzu etxerako behar duzun guztia

**ORDUTEGI JARRAIAN**
**10:00 etatik 22:00 etara**
**ASTELEHENETIK LARUNBATERA**

**Lerun Industrialdea**
**ELGOIBAR**

GRUPO IFA


EIZAGUIRRE
OKINDEGIA
LANTEGI PROPIOA
Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...
"Betiko ogia"
Ondo pasa jaiak!
San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88


amalurra
fisioterapia zentrua
amaia etxebarria • estitxu uribeetxebarria
San Frantzisko Kalea, 58 behea
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 53 14 63
amalurrafisio@yahoo.es
Ondo pasa jaiak!


Lanbroa
Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak
PLATER KONBINATUetan aukera zabala
Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06/943 74 38 11

# URZELAI

Elektrizitatea
Argiztapena



Santa Ana, 12-14 • Tel.: 943 74 13 76 / 608 77 40 32



# PNEUMAX

KALITATEA ZIURTATZEKO
SQS sistema
ISO 9001/EN 29001
Erreg Zk.: 10677-01

### ENPRESA

*__PNEUMAX S.A.__ enpresan, hau da, Italiako __PNEUMAX S.P.A.__k Espainian duen filialean, 25 urte baino gehiagoko esperientzia daukagu automatizazio pneumatikoaren alorrean.*

*Gure Elgoibarko instalazioek 1.000 m²-ko azalera dute estrategikoki kokatuta dagoen industri-poligonoan.*

*Zilindroak muntatzeko eta materiala banatzeko dauzkagun metodo aurreratuekin, gure bezeroei zerbitzu azkarra garantizatzen dugu.*






### EGITURA

*__PNEUMAX S.P.A.__ ren egoitza nagusia Lurano-n (Bergamo-Italia) dago, 13.000 m²-ko azalera dauka, goi-mailako koalifikazioa duten langileak ditu, eta etengabe ari da hedatzen.*

*Bost filial ditu Europan eta Ekialdean, hiru Italian eta ehun kontzesionario esklusibista baino gehiago munduan. Era honetan garantizatzen da asistentzia eta produktuen distribuzioa mundu osoan.*

### PRODUKTUAK

*Gure produktu-gama zabalaren bidez erraz aurkituko duzu automatizazio-behar bakoitzerako produktu egokia. Izan ere, gure produktuak SQSk Ziurtatutako Kalitate Sistemaren bidez (Kalitatearen Ziurtapenerako Erakunde Suitzarra) proiektatu, garatu, fabrikatu, kontrolatu eta merkaturatzen dira, ISO 90001/EM 29001rekin, hain zuzen ere.*

- *Airearen tratamendurako FRL taldea.*
- *Mikrobalbulak*
- *Balbulak eta elektrobalbulak*
- *Balbula osagarriak eta osagaiak*
- *Balbulak eta elektrobalbulak hutserako*
- *ISO 5599/1 banatzaileak*
- *ISO 6432 mikrozilindroak*
- *ISO 6432 - VDMA 24562 zilindroak*
- *Biraketa-unitateak*
- *Ibilbide laburreko zilindro konpaktoak*
- *Zurtoinik gabeko zilindroak*
- *Abiadura-erregulatzaile hidraulikoak*
- *Gida-unitate linealak*
- *Txokerako WEFORMA amortiguadoreak*

**PNEUMAX S.A.**

*Olaso, 54 • **Tel:** 943 74 41 44-74*
***Faxa:** 943 74 40 76*
*20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)*

# El Gautxo

**Txiki Egunerako menua:**

- Entsalada
- Oilaskoa papatekin
- Tarta izozkiarekin
- Kafea

**20€**

(Edaria aparte)



bokatak

entsaladak

pizzak

gozoak

*Jai zoriontsuak guztioi!*

Errosario, 31 • ELGOIBAR • Tel.: 943 53 17 71

# MADIGAN´S

## IRISH PUB




- Gosariak
- Pintxoak
- Bokatak
- Entsaladak
- Plater konbinatuak

**GIRORIK ONENA!**



**Ordutegia:** Igandetan, 10etatik aurrera
Astelehenetik larunbatera 7etatik aurrera

Bernardo Ezenarro, 2 behea
Tel.: 943 53 15 57

# San Bartolomiak 06

## Egitaraua

## alkatearen agurra



2006ko abuztuaren 23ko ordu bata iritsitakoan, hasierako txupinazoaren ostean, guztiok- haur, gazte eta heldu – jaietako egitarau aberatsaz gozatu ahal izango dugu. Elgoibarko kaleak kolorez bete daitezela nahi dugu, eta denok SAN BARTOLOME jaiez gozatzeko prest egon gaitezela. Kanpai eta txistu hotsak, banda, txarangak umeen barre-algarak, nagusien irribarreak eta lagunen poza, jaiegun hauetan, gure herria alaituko duten musika bihur daitezela desio dugu.

2003ko abuztuaren 23an, eguerdiko ordu batean, elgoibartar naizen aldetik, urduritasunak, poztasunak eta harrotasunak betetzen zuten nire gogoa; niretzat ohore handia zen-eta txapligua piztu, eta SAN BARTOLOME jaiei hasiera ematea. Uste izan nuen lehendabiziko urtea zelako gertatu zitzaidala hura; eta bizitzan egiten ditugun gauza gehienetan bezala, errepikatzearen poderioz, gutxitu egingo zela horrek guztiorrek zuen garrantzia. Hala ere, huts egin nuen, urtez urte, une horrek zoragarria eta berezia izaten jarraitzen baitu, zuok, elgoibartarrok, eman didazuen aukerari esker. Ziur naiz, behin eta berriz errepikatuagatik, une hori ez dela sekula aldatuko.

Elgoibartarrok! Kultura Sailak, beti bezala, hain ilusio eta ardura handiz prestatu dituen jaiez gozatzeko gai izan gaitezela, edozein arrazoi dela-eta, gure artean egon ezin direnak ahaztu gabe.

**Gora San Bartolome!**

**Marivi Agirregomezkorta**

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7tik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8tik aurrera
Pedro Muguruza, 5 Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 670

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

URKIDI AHOLKULARITZA
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Liberty Aseguruak
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

# San Bartolome Bezpera

## ABUZTUAK 23, eguaztena

**9:00 LX MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA**
Elite Mailako Amateurrentzat (20-23 urte). Gure Bide Elkarteak antolatuta.
Irteera: Plaza Handian
Helmuga: Santa Klaran



**13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI HOTSA**
Ikurrina jasoko da jaiei hasiera emateko.
Plaza Handian.



**Ondoren,** Mauxitxa Txarangaren kalejira.

**16:00-20:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian eta Aita Agirre Plazan.
(Euria egiten badu, Sigman).

# Egitaraua



**16:30 IZUGARRIZKO SORPRESA**
Zaharren Biltokian.

**17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin batera.

**18:00 FUTBOL PARTIDUA MINTXETAN**
C.D. Elgoibar-C.D. Zarautz
Antolatzailea: C.D. Elgoibar.

**20:00 SALBEA PARROKIAKO ABESBATZAK ABESTUTA**
Udalbatza San Bartolome Parrokiara joango da, aurretik Alkate Soinua joz, Udal Txistulari Taldeak lagunduta.



**Jarraian,** Kartel Lehiaketako eta Kirol Argazki lehiaketako irabazleen sariak banatuko dira Udaleko Pleno Aretoan.

**22:30 "DOCTOR DESEO" ETA "PUTO AMOAK MATEMATIKETAN" TALDEEN KONTZERTUA.**
Plaza Handian.


Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60
tel.943 74 19 43

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

MIKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
MULTIKOPISTAK
FOTOKOPIADORAK
PLANOEN BIRREGILEAK
ERLOJU INDUSTRIALAK
MARRAZKETA MATERIALA
INFORMATIKA
FAX

Lazanet

Pintxoetan sukalde zabala
P. Mugurutza, 7 Tel: 943 74 16 76

AZPELETA elektrizitatea
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENAK
- AUTOMATISMOAK
Ondo pasa Jaiak!
San Frantzisko 51, behea. Tel: 943 74 12 38




# San Bartolome Eguna

## ABUZTUAK 24, eguena

**9:15 HERRIKO DULTZAINEROEN DIANA**

**9:45 UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA**

**10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**



**10:45 ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA**
Udal Musika Bandak, Txistulari Taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome Parrokiara joango dira Meza Nagusira. Mezatan Parrokiako Abesbatzak kantatuko du.

**Jarraian, SOKA DANTZA** Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin Plaza Handian.



**Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Plaza Handian.
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro Agirre.

## *Egitaraua*

**16:30-21:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian eta Aita Agirre Plazan. (Euria egiten badu Sigman).

**17:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin batera.

**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDUAK**
Ikastolako Frontoian.

**19:30 MEXICO LINDO MARIATXIEN KALEJIRA**



**23:00 SU ARTIFIZIALAK**
Zaragozana Pirotekniarekin IMHko aparkalekuan.



**Jarraian, MEXICO LINDO MARIATXIAK eta DUO PLAENTXI TALDEEN KONTZERTUA**
Plaza Handian.

**Goizaldeko 5:30etan, TXOKOLATE JATEA**
Madalako Parkean.


**ESKURA EZAZU TXANKAKUA TXARTELA**




TXANKAKUA txartelarekin erosterakoan, puntuak bildu eta opariak irabaziko dituzu.

katalogoa

→ Doan da.
→ Erosketak hiru hilabetetan zehar ordaintzeko aukera inolako interesik gabe.
→ Zuk nahi duzun Banketxean helbidera dezakezu.

| | |
|---|---|
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| ARANBURU BITXIDENDA | 742535 |
| ARAURI LURRINDEGIA | 741780 |
| ARRIETA MODAK | 740840 |
| AZKUE ARGAZKI DENDA | 740848 |
| AZPELETA ELEKTRIZITATEA | 741238 |
| CASA ASTIGARRAGA | 743288 |
| DORI URDAITEGIA | 741192 |
| EGENARRO MERZERIA | 742619 |
| EIZAGUIRRE OKINDEGIA | 740488 |
| FARMA APRAIZ | 743608 |
| FERPI MODAK | 740815 |
| G & M JANTZIDENDA | 744617 |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| KARKIZANO | 740549 |
| LA INDUSTRIAL GUIPUZCOANA | 740139 |
| LAGUARIN OKINDEGIA | 637512224 |
| LANBROA | 740808 |
| LANDA HARATEGIA | 742758 |
| LAZTANA | 740091 |
| LEIGAR ELEKTRAGAILUAK | 740064 |
| LETE | 744199 |
| LOMBOK | 631068 |
| LUVIK OINETAKOAK | 744346 |
| MG BURDINDEGIA | 740831 |
| MURUAMENDIARAZ | 740346 |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] |
| SUMOFIC | 744102 |
| URKIDI AHOLKULARITZA-ASEGUROAK | 741801 |
| UZURI OPTIKA | 740359 |
| XIGORTZE OPARIDENDA | 744341 |
| ZAZPI INFORMATIKA | 743787 |
| ZELETA BARAZKIAK | 743022 |

*Diru laguntzailea:*

**EUSKO JAURLARITZA**




# Txiki Eguna

## ABUZTUAK 25, barixakua

**7:30 DIANA** Mauxitxa Txarangarekin eta Herriko dultzaineroekin.



**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.



**Jarraian, SALDA eta TXORIZOA**
Zubi-ondo, Gure Bide, eta Herri Gain elkarteek eta Batzokiak banatuta.



# Egitaraua

**12:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**



**17:30 HAURRENTZAKO ZEZENTXOAK eta PONIAK**
Sigman.

**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDUAK** Ikastolako Frontoian.

**19:00 TAMSNA TALDEAREN KALEJIRA**

**22:30 EGAN TALDEAREKIN DANTZALDIA**
Plaza Handian.




ecenarro
Barruko erropak • Umeentzako erropak
San Frantzisko, 10 Tel: 943 74 26 19

- Kontabilitatea
- Asesoria fiskala
- Asesoria laborala
- Abokatuak
ASESORIA GOAR
San Bartolome, 2
Tel: 943 74 26 74 / Faxa: 943 74 21 29
asesoriagoar@euskalnet.net

INMUEBLE AGENTZIA
ARBELOA
INMOBILIARIA
Jai zoriontsuak!
arbeloa@telefonica.net
San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27

NORFO S.L.
Ondo pasa jaiak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

OLATZ, S.L.
SUKALDE eta KOMUNERAKO ALTZARIAK
Aulki eta mahaietan aukera bereziak
Pedro M. Urruzuno, 8 Tel: 943 74 38 44

presto
Kalitatezko tindategia
Arropen eraldaketa eta konponketa
San Frantzisko, 32 Tel. 943 74 35 08

## Baserritarren Eguna

**ABUZTUAK 26,** zapatua

**9:30 EUSKADIKO LIMUSIN ABELGORRIEN XIV. TXAPELKETA**
Plaza Txikian.



**10:00 GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGI-ETORRIA**
Plaza Handian, Haritz Dantzari Taldearen eta Udal Txistulari Taldearen eskutik.

**Jarraian, ZABALE ETA BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**11:00 XXIII. SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTAKETA**
Plaza Handian, Sallobente Elkarteak antolatuta.



**14:30 BASERRITARREN ANAIARTEKO BAZKARIA**
Zaharren Biltokian.

**17:00 ZABALE ETA BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**18:00 SAN BARTOLOMEETAKO VIII. HARRIJASOTZE TXAPELKETA**
Plaza Handian.

**Ondoren, GANADU LEHIAKETAKO IRABAZLEEI SARIAK BANATUKO ZAIZKIE**
Plaza Handian.

**23:00 PATXI ETA KONPAINIA TALDEAREKIN ERROMERIA**
Plaza Handian.

PILAR IKASTETXEA
Elgoibar
San Bartolome jaietan alaitasuna eta anaitasuna.

LAGUN ARO
ASEGURUAK
Euskadiko Kutxa Taldekoa
Ondo pasa jaiak!
Santa Ana, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel. 943 74 73 70
Fax 943 74 16 51
ygarcia@seguroslagunaro.com

OIHALAK
MERTZERIA
NEURRIRA EGINDAKO JANTZIAK
Aupa San Bartolo!
San Bartolome, 19 • Tel: 943 74 35 95

Gabiola
GESTORIA
• Ibilgailuak
• Garraioak
• Gai orokorrak
AXA
ASEGURUAK
San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - ELGOIBAR

*Egitaraua*

## Jubilatuen Eguna

### ABUZTUAK 27, domekia

**7:45 IDIARENA**
Herriko Dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA**
Arnoren zezenekin, King-Kong parean hasita.

**11:30 GANADU ERAKUSKETA ETA ENKANTEA**
Plaza Txikian.



**12:30 JUBILATUEI ESKAINITAKO MEZA**
San Bartolome parrokian.

**14:00 JUBILATUENTZAKO BAZKARIA**
Olaizaga kiroldegian, Eguren Orkestrak alaituta.

**17:00 UMEENTZAKO ZEZENTXO ETA PONIAK**
Sigman.

**19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA**
Plaza Handian.



**22:30 UDAL MUSIKA BANDAREN ESKUTIK DANTZALDIA**
Plaza Handian.

## [ OSASUN GIDA ]

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK
Kemen Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00
Sanatana Dharma Yoga Elkartea
Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131
Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK
Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00
Uzuri
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK
Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### HORTZ KLINIKAK
Irale
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

### FISIOTERAPIA
Ainhoa Fisioterapia
Eragozpen fisikoa egongo balitz etxez etxeko zerbitzua eskeintzen da.
Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)
Jausoro, 6 behea
Olatz Fisioterapia
(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1 - Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### PODOLOGOAK
Iñaki Rivero
San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90
Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30
Oinberri
Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

JOSE MARI
ARANZAMENDI "KATEI"

EDARI BANATZAILEA

GASEOSA PITUSA

INSALUS

eva

San Miguel 0,0%

GURELESA

SANTA ANA, 41

943 74 10 41
Mobila: 659 77 23 89



## ABUZTUAK 29, martitzena

**19:00 ESKUBALOI PARTIDUA**
J.D. Arrate-CAI Aragon
Olaizaga Kiroldegian.

## IRAILAK 1, barixakua

**11:30-14:00 ETA 16:00-20:00 ERREALAREN BIRA**
Futboleko bira tematikoa Plaza Handian.

# Gazteen Eguna

## IRAILAK 2, zapatua

**8:00 DIANA**
Herriko Dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA eta TXORIZOA**
Zubi-Ondo, Gure Bide, Karakate eta Herri Gain elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:30 GOITIBEHERA JAITSIERA**
San Roken, Gazteen Gurutze Gorriak antolatuta.



**13:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA.**

# *Egitaraua*



**16:00- 18:30 FUTBOL PARTIDUAK ZEZEN ENBOLATUEKIN**
Plaza Txikian.

**17:00- 19:00 ZALDI LASTERKETA IKUSTEKO UPAITZAKO ZELAIETARA ZALGURDIAN IGOERA**
Madalako parketik.



**19:00 ZALDI LASTERKETA UPAITZAKO ZELAIETAN**
Albitxuriko Industrigunearen gainaldean.

**Ordu berean, BIZNIETOS DE CELEDON FANFARREAREN KALEJIRA**

**23:00 UEK ETA BERRI TXARRAK TALDEEN KONTZERTUA.**
Plaza Handian.

## Elgoibarko Institutuak

Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
www.elgoibarbhi.net



eta
## Herri Eskolak

Kalamua, 18
Tel.: 943 74 08 79



JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUETE

ESTUDIOS ARRILLAGA



Eibarko estudioa

PROIEKTU ETA ERREFORMAK

LOKAL KOMERTZIALAK

ETXEBIZITZAK

ALTZARIGINTZA OSOA

GREMIOEN ZUZENDARITZA



Elgoibarko estudioa

Arrageta, 12 behea · Eibar · 943 20 06 98

Errosario, 15 · Elgoibar · 943 74 40 19



# Umeen Eguna

## IRAILAK 3, domekia

**10:30 HAURRENTZAKO ENTZIERROA**
Nafarroa Plazatik Plaza Handiraino.

**10:45 ZEZENTXOAK eta PONIAK**
Plaza Handian.



**11:30-14:00 MARRAZKI LEHIAKETA**
Elizako arkupeetan
Antolatzailea: Gurutze Gorria

**14:00 HAURREN BAZKARIA**
Elizako arkupeetan. (Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du. Edaria eta postreak banatuko dira).

**14:30 HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian eta Aita Agirre Plazan. (Euria eginez gero, Sigman).

**18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.



**Ondoren, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**
Mauxitxa Txarangarekin.

**20:00 UMEENTZAKO JAIALDIA KANPANOLUE TALDEAREKIN.**
Plaza Handian.


Iriondo
taberna
Jai zoriontsuak
elgoibartar guztioi!


ETXEKIT
Luis F. Beristain
SUKALDERAKO ALTZARIAK
xey
banatzaile ofizila
Ondo pasa jaiak!
12 urteko bermea
Arrillaga z/g - Elgoibar
Tel. 943 74 43 47


LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA
TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54


GOKI ERREFORMAK S.L.
Honako Instalazioetan baimendutako enpresa:
Klimatizazioa
Berokuntza
Gasa
Iturgintza
Erregai Jikidoak (Gasoleoa)
EGUZKI - ENERGIA
ERAKUSKETA
Bainugelak
Ateak
Lurrak
OBRAK ETA PROIEKTUAK
Aroztegia
Fatxadak
Teilatuak
goki-erreformak@olapymes.com
Olaso pol., 15-68 Pb. ELGOIBAR • Tel. 943 74 28 80 / 943 74 42 23 / 943 74 46 40 - Faxa 943 74 45 87


HIZKUNTZ SOLUZIOAK
ILSn Hizkuntza Ikastaroak
Ingelesa, Frantsesa, Alemana, Italiera, Txinera
Enpresetan taldeak (helburu, ordutegi arabera neurrira eginak)
Modulo Komertzial eta Teknikoak (Ingelesa, Frantsesa, Alemana)
"One to One" banakako eskolak.
ILS-en ikastaro irekiak, mailaka (Urritik Ekainera)
Atzerrian egonaldiak
Hizkuntza guztietan itzulpenak
Makina Herramintan adituak
Esperientzia zabala duen lan taldea
Eskuliburuak
Katalogoak
Web orriak
Testu Komertzialak
ITZULPEN JURATUAK
Ondo pasa jaiak!
INDUSTRY LANGUAGE SERVICES
www.ils.es
Azkue Auzoa, 1-P.K. 37
E-maila: ils@ils.es
Tel.943 744 040 Faxa: 943 741 654


Ondo pasa jaiak!
ALTZOLA
• 3 logelako etxebizitzak terraza zabalekin. • Duplex-ak.
• Toki lasai eta loretsua. • Lehen urteko asegurua dohainik.
ALBOKUAK INMOBILIARIA
Errosario, 12 - Tel.: 943 74 06 73 / 656 79 71 69
E-posta: albokuak@euskalnet.net
PEDRO MUGURUZA
• Sala, sukaldea, 3 logela eta bainua
• Sartzeko egokia
• Igogailua
• Eguzkitsua eta terraza zabalakin
BASARTE
• Saloia, sukaldea, 3 logela, 2 bainu eta despentsa
• Egoera bikainean
• Dena kanpo aldera
• Garajea aukeran


Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta
Ondo pasa 2006ko San Bartolome jaiak!
www.imh.es


Burtsa informatikoa
API
Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo
Jai zoriontsuak denoi
San Frantzisko, 51-1esk ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67

# Aterpe TABERNA

Ondo pasa jaiak!





**Bezpera egunerako MENU BEREZIA**

- Marmitakoa
- Letxuga, oilaskoa eta patatak
- Brazo-gitanoa izozkiarekin
- Kafea

**18€**



ELGOIBARKO ERREHABILITAZIO FUNTZIONALA

# ERREHABILITAZIO ZENTRUA

MUTUA-ASEGURUAK ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

MEDIKU ERREHABILITATZAILEA: DRA. MARIA ETXANIZ

- Fisioterapia Espezializatua
- Errekuperazio Funtzionala
- Masoterapia
- Osteopatia
- Gorputz Balorazioa
- Kirol Fisioterapia
- Hidroterapia
- Amatasun Prestakuntza
Inkontinentzia
Logopedia, etab.

(CRH/ Eibar)









San Inazio, 2
ELGOIBAR
Tel./Fax: 943 74 33 74


ELGOIBARKO ERREHABILITAZIO FUNTZIONALA

15:00ETAKO TXUPINAZOA

# Aintzinako tradizioari eutsiz, bi ordu beranduago hasiko dira jaiak herritar askorentzat

Elgoibarko San Bartolome jaiak 15:00etan hasten ziren garai batean. Parrokiako erlojuak 15:00ak markatzen zituenean, kanpai hotsekin batera botatzen zen jaiei hasiera ematen zien txupinazoa.

Herritarrak Foruen Plazan biltzen ziren, eta plater bat apurtu eta mahatsa jateko ohitura ere bazegoen.

Urteak aurrera joan ahala, eta gizarteko ohiturak aldatu egin direnez, Elgoibarren txupinazoa orduz aldatu zen. Herritarrentzako erosoagoa izango zelakoan, Udalak 13:00etan jarri zuen txupinazoa.

Gauzak horrela, herritar talde batek 15:00etako txupinazoaren tradizioari eustea erabaki zuen. Beraz, urte askoan bi txupinazo izan ditugu San Bartolome jaietan, bata Plaza Handian 13:00etan eta bestea Giza Eskubideen Enparantzan 15:00etan.

Azken bi urteotan polemika latza sortu da 15:00etako txupinazoaren inguruan.



Udalak debekatu egin zuen, segurtasun neurriak betetzen ez dituelako. Hala ere, herriko talde batek aspaldiko ohitura honi eusten jarraitzen du, eta nola edo hala, aurten ere, 15:00etan 3 txapligu botako dituztela kontatu digute antolatzaileek. Giza Eskubideen Enparantzan, dultzaineroen doinuen laguntzaz jaurtiko da beraz, 15:00etako txupinazoa.



URKIOLA

Jaiak zuekin ospatzeko prest!

San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 74 20 73

GUNE ASKATUA

# San Bartolome jai alternatiboak

Arratsaldeko 18:00etan hasiko dira Gune Askatuko jaiak. Madalako Parkean botako dute jai alternatiboei hasiera emango dien txupinazoa, eta ordutik aurrera, etengabeko festa giroa izango da Gune Askatuan.

Herriko zenbait taldek Madalako Jai Batzordea sortu zuten duela zenbait urte, Udalak antolatutako jaietaz aparte, beraiena den gunean, San Bartolome jai alternatiboak antolatzeko asmoz.

Diru askorik gabe, ekitaldi ugari antolatu dituzte aurtengo jaietarako ere. Bi orrialde hauetan jaso dugu Gune Askatuko egitaraua.

**Gazteen Eguna irailaren 1ean**

Jai alternatiboak eta gainera, Udalak antolatutako jaiekin zerikusirik ez daukan egitaraua prestatu du Madalako Jai Batzordeak. Urtero bezala, Gazteen Eguna ostiralean jarri dute. Esan digutenez, beraientzat ostirala da Gazteen Eguna, eta gainera, Gune Askatuan egunik garrantzitsuena izango da.

Berrikuntza pare bat sartu dituzte egun honetarako: eguerdian tortila patata lehiaketa izango da eta arratsaldean Gin-kana.

Jende askorentzat lanera hasteko eguna izango den arren, Gune Askatuan festa giroa izango da protagonista goizetik gauera.





HAIR'S
ILEAPAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea • Tel.: 617 988 130
Ondo pasau jaixak!
Ostiraletan egun guztian zehar edukiko dugu irekita (9:00-19:00)

OLASO
TABERNA-JATETXEA
Gosariak - Menuak...
Jai zoriontsuak!
Olaso Industrialdea, 15 Tel. 943 74 31 85 - 636 01 57 07

Imprenta Arrillaga
Inprimaketa: Offset Digitalean
Fotokopiak
Ondo pasa jaiak!!



**Txiki Eguneko dantzaldia**

Iaz bezala, Nekin taldeak alaituko du Txiki Eguneko arratsaldea Gune Askatuan. Madalako Jai Batzordeak esan bezala, herritarrak kalean dantzan egiten duten egun bakarra izaten da hau. Mauxitxa Txarangaren kalejira bukatu ondoren, eta bapo bazkaldu ostean, zangoak mugitzeko aukera ezin hobea izango da arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

## GUNE ASKATUA EGITARAUA

**Abuztuak 23** San Bartolome bezpera
18:00etan **Jaiei hasiera emateko txupinazoa**
22:30 **Kontzertua: "Luchando para cambiar" eta "Buena quedadita" taldeekin**

**Abuztuak 24** San Bartolome eguna
22:30 **Kontzertua: "Gose" eta "Naiz Roxa" taldeekin**

**Abuztuak 25** Txiki Eguna
15:00 **Presoen aldeko bazkaria**
Arratsaldean, **dantzaldia Nekin taldearekin**

**Abuztuak 26** Baserritarren Eguna
Gauean **Djak txosnetan**

**Irailak 1** Gazteen Eguna
12:00 **Tortila patata txapelketa**
Jarraian, **trikipoteoa**
14:30 **Txalapartariekin, bazkarirako deia**
15:00 **Bazkaria**
18:00 **Gin-kana**
21:00 **Elektrotuna**

**Irailak 2**
Gauean, **DJ Bulekin gaupasa**







ZALDI LASTERKETA

# Zaldi Lasterketa Albitxuriko industrigunearen gainaldean izango da





Nobedadeekin dator zaldi lasterketa. San Bartolome jaietan egiten den hirugarren aldia izango da aurtengoa, eta antolatzaileek, egunez eta tokiz aldatu dute. Iaz, San Bartolome egunez izan bazen, aurten Gazteen Egunean (irailak 2) jokatuko da zaldi lasterketa (19:00etan).

Tokiari dagokionez, aurreko bi edizioak, Sallobenteko Ibar Txiki baserriaren zelaietan jokatu badira ere, hirugarren hau, Albitxuriko industrigunearen gainaldean jokatuko da, Upaitza baserriaren zelaietan. Bertara iristeko Iparlaser enpresaren atzetik joan behar da Upaitza baserrira igotzeko bide zaharretik.

Txoko guztietatik etorritako 15 zaldi eta zaldun arituko dira lehian, 3 txandatan banatuta. Finalerako, saio bakoitzeko lehen biak salkatuko dira, alegia, sei zaldirik bizkorrenak. Antolatzaileek 400 metroko zirkuito borobila prestatu dute eta 5 itzuli, hau da, 2 kilometroko distantzia, egin beharko dute txanda bakoitzean.

Bestalde, iaz moduan, zaldi lasterketa ikusteko Upaitzako zelaietara zalgurdian igotzeko aukera izango da. 17:00etatik 19:00etara bitartean etengabe egingo du zalgurdi dotoreak Madala eta Upaitza bitartean dagoen bidea.


Brochados y planeados

albe S.L.

LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
NONIUS GRABATUAK

ONDO PASAU FESTETAN!

Sigma Industrialdea Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com

talleres ZAILDU

MAKINARIA KONPONKETAN ESPEZIALISTAK
Mandrinadorean planoekin egindako lanak
Fresadora, Taladroa, Tornoa eta Errektifikadora

San Bartolome
jai zoriontsuak
elgoibartar guztioi!

Santa Klara, 40 – Tel: 943 74 07 60 – Faxa: 943 74 39 95
zaildu@zaildu.com

# ZELETA BARAZ-

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Jai zoriontsuak!

**Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu**

**ZELETA BASERRIA**
San Migel auzoa ELGOIBAR
**Tef.: 609 35 76 19**
www.zeletabaserria.com

URDAITEGIA - JANARIDENDA

# DORI

- Produktu iberikoak
- Hestebeteak
- Urdaiazpikoak
- Kontserbak
- Gaztak / Pateak





Errosario kalea, 29 • Tel.: 943 74 11 92 / 943 74 10 25


arkhiru arkitektoak
SIGMA- ELGOIBAR
telf-fax 943 74 31 45
ark3arkitektoak@coavn.org


ARNOPE
NAVA
INPRIMATEGIAK
ARNOPE
Jose Mª Altzibar, 6 - II. Blokea
Telf. eta Faxa: 943 603 194
e-mail:arnope@terra.es- 56
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)
NAVA
Santa Ana, 44 - 208
Telf. eta Faxa: 943 744 451
e-mail:nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)


Zerbitzu iraunkorra: 943 74 13 27
EHORZKETA
ETXEBERRIA S.L.
BEILATOKIA
Santa Klara, 16 behea • ELGOIBAR
Tel: 943 741 656 / 943 740 117
Mugikorra: 635 75 62 95
E-posta: tanaetxe@terra.es

JAIETAKO KONTZERTUAK

# MUSIKARIK GABE, JAIRIK EZ!

*Musikarik gabe ez dago jairik! Festa giroan murgiltzeko ezinbestekoa da musika. Jai giroan eskeletoa mugitu behar da, bakoitzak berea, bere estiloko musikarekin. Aurtengo jaietan denon gusturako musika izango dugu. Hemen bildu ditugu jaietako kontzertu gehienak. Dantzarako prest?*

## Doctor Deseo

**Abuztuak 23, 23:30 Plaza Handian**

1984an sortu zen Doctor Deseo laukotea. 1986an Bilboko pop-rock lehiaketa irabazi zuten eta hortik etorri zen taldearen lehenengo diskoa. Zuzeneko emanaldietan dena ematen dute, eta beren jarraitzaileek badakite hori eskertzen. Etiketarik gabeko taldea da, desberdina, pop melodikoa egiten dute, batez ere. Disko berriko abestiekin batera, betiko "Corazon de tango" edo "la chica del Batzoki" moduko abestiak entzuteko aukera izango dute gaur gauean Plaza Handira gerturatzen direnek.





## Puto Amoak Matematiketan

**Abuztuak 23, 22:30 Plaza Handian**

Julio Kageta eta Dantzut taldeen semeak dira Puto Amoak Matematiketan, Ermuatik datorren laukotea: Carlos Balseiro (kitarra, ahotsa), Iker Zaitegi (kitarra, ahotsa), Juanmi Bravo (bateria) eta Markos Gimeno (baxua). Utz diezaiegun beraien burua eta musika aurkezten: "Zuzenekoan larrua lagatzen dutenak, lagunarteko taldelana, oinarrizko punkrock-a iturburu, begirada irekia, estilo propioa, urteetan heldutako taldea, zatoz eta gozatu, bat gehi bat gehi bat gehi bat, berdin infinito". Horiek dira Puto Amoak Matematiketan.

## Luchando para cambiar

**Abuztuak 23, 22:30 Gune Askatuan**

Taldearen azken diskoak "Quijotes de un ideal" dauka izena. Gaur gauean talde honen musika entzun ahal izango dugu Gune Askean. Emakume ahotsarekin punk gogorra egiten dute.

## Gose

**Abuztuak 24, 22:30 Gune Askatuan**

Arrasateko hirukote honek trikia eta elektronika batzen ditu. Oro har, erritmo lasaiak, dotoreak eta malguak, elektro-jazzaren tankerako abestiak. Euskal trikiaren kultura iraули egiten du, testu lizunak euskaraz abesten.



ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

### Naiz roxa
**Abuztuak 24, 22:30 Gune Askatuan**

Naiz Roxa Gipuzkoako Pasai Donibane herrian sorturiko talde berria dugu. Jousilouli taldean ibilitako Matxet-en musika abentura berria. Dagoeneko kontzertu dezente eskaini dituzte, joan den urtean grabatutako lana aurkeztuz: "Ep laburrean". Bost abesti barneratu dituzte, soilik zortzi minutu irauten duen maketan. Naiz Roxak benetako zarata egiten du, abiadura eta energiak bat eginez.



### Mexico lindo
**Abuztuak 24, 23:15 Plaza Handian**

Dantza eta musikaz beteriko jatorrizko ikuskizun txundigarri honetan Mexikoko erritmo musikal eta dantza folkloriko ezagunenak aurkeztuko dira. 14 musikarik eta 12 dantzarik hartuko dute parte. Jatorrizko balore kulturalak mantenduz, bere jantzien koloreen orijinaltasunarekin, musikarekin, mugimenduarekin, koreografiekin, diziplinarekin, bere dantzarien armoniarekin Mexikoko dantza eta erritmo ezagunenak lantzen dituzte. Beraien helburua musikaren eta kantaren bitartez Mexikoko ohiturak, munduan zehar erakustea da.

### Nekin
**Abuztuak 25, 19:00 Gune Askatuan**

Bost gaztek osatzen dute Tolosaldeko talde hau. Pandero eta trikitixa doinuekin dantzaldia eskainiko digute Txiki Egunean. Duela lau urte inguru sortu zuten taldea, eta ordutik Euskal Herri osoan zehar aritu dira. Euskal talde ezagunen abestiak jotzen dituzte; Hertzainak, Kortatu eta Itoitz, besteak beste.






### Smoke screen eta Dj black
**Abuztuak 25, 22:30 Plaza Handian**

Smoke Screen Euskal Herriko funk eta hip-hop estiloko lehen konpainiak, dantza eta musika ikuskizunak uztartuko ditu hip-hop eta funky jaialdian. Elisabet Baztan eta Sergio Nguemaren zuzendaritzapean sei dantzari igoko dira Plaza Handiko eszenatokiko oholtza gainera. DJ Blacken laguntzaz, indarrez beteko dute agertokia gipuzkoarrek, hip-hop estiloko koreografiekin.

### Patxi eta konpainia
**Abuztuak 26, 22:30 Plaza Handian**

Patxi Perez dantzariaren inguruan osatutako taldea da Patxi eta Konpainia. Musika eta dantza tradizionalak jairik jai zabaltzeko asmoz sortu zuten taldea. Euskal Herriko dantzez gain, beste lurralde bat-

Aramburu
Bitxidenda
Ondo pasau San Bartolome jaixak!
San Frantzisko, 26 - 943 74 25 35

AZALEA
edergintza
Orain **mikropigmentazioa** eta **laser depilazioa** ere egiten dugu
Trenbide kalea, 3 - Tel. 943 74 03 10

Truk

San Frantzisko, 24
Tel. 943 53 04 92
Pintxuak eta bokadiluak ditugu!

zutako dantzak ere tartekatuko dituzte. Ikusleak dantzan jarri aurretik taldeko kideek nola dantzatu behar den erakustaldiak egingo dituzte.

### Biznietos de Celedon fanfarrearen kalejira

**Irailak 2, 19:00**

Adin guztietako 40 lagunek osatzen dute Biznietos de Celedon fanfarrea. Errazaz asmatuko zenuten moduan, Gasteiztik datoz. Blusa koadrila honek 27 urtez, etenik gabe, parte hartu izan du San Prudentzio eta Ama Birjina Zuriaren jaietan. Gerritik zintzilik daramaten sartagina da fanfarre talde honen ezaugarririk berezkoena. Abilezia bikaina erakusten dute 'instrumentu' bitxi hau eskuetan dutela. Kalez kale ibiliko dira giroa alaitzen.





### UEK

**Irailak 2, 23:00 Plaza Handian**

UEK Keu da alderantziz. Eta Keu Jesus Mari Agirretxea da, Ondarruko gitarra jotzailea, euskal rockaren baitan curriculum garrantzitsuaren jabe dena. Bere aurreko hiru lanetan paisaia instrumentalak marraztu baldin baditu, kasu honetan KEUk berak abesten du eta jotzen du gitarra, Mikel Arakistain baxu jotzaileak (Etsaiak, Fjord) eta Jon Gurrutxaga bateria joleak (Arima Beltza) lagundurik. Agerian geratzen da talde gisa bere egiten dutena: 70. urteetako hard-rocka, rock melodikoa eta erritmo biziak tarteko Power hirukote baten moduko esperientzia. "Heltzear diren egunak" euren azken diskoak, Rocka dakar batez ere, pop ukituekin.

### Berri Txarrak

**Irailak 2, 23:00 Plaza Handian**

Lekunberriko taldeak bere azken diskoa aurkeztuko digu Gazteen Egunean. "Jaio.Musika.Hil" diskoko doinuekin batera, beraien ibilbideko abesti ezagunenak ere entzuteko aukera izango dute Plaza Handira gerturatzen direnek. Hirukote moduan dator orain taldea, doinu berriekin. Prentsa adituak rock alternatibo talde onenen artean kokatzen du Berri Txarrak.



### Kanpanolue

**Irailak 3, 20:00 Plaza Handian**

Munduari bira eman eta gero, Kanpanolue taldea berriz dator Euskal Herrira, hainbat herrialdetako kantak eta dantzak erakustera. Sahara, Quebec, Kuba, Japon eta Grezia ko doinuak ekarriko dizkigute, besteak beste.


DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa

- Diseinu grafikoa
- Offset litografia
- Fotokonposizioa
- Publizitate diseinua
- Era guztietako iragarki komertzialak
- Inpresio digitala

Ondo pasa jaiak!

Sigma industrialdea.
Xixilion 2 - 2. solairua - 7 lokala - **ELGOIBAR**
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
E-posta: debape@telefonica.net

MUEBLES Almacén
Tel./Faxa: 943 742 941
Urasandi, 2 - 1
Elgoibar



# Atzera begira



**1956**. urteko erretratu zahar hau **Josepi Elorzak (Kortaberri)** laga digu. Donostian bizi den elgoibartar honek bidali digu Txiki Eguneko argazki hau. Lagun artean ateratako argazkia da. Dotore jantzita ageri zaizkigu neskatxa gazte hauek erretratu honetan, gaur egungo Txiki Egunarekin zerikusi handirik ez dauka. Ez dakigu non aterata dagoen argazkia, ez dugu lekua ezagutu, hianbeste aldatu da gure herria azken urteotan! Kapelak jantzita, festa giroan ibiltzen ziren neska-mutil hauek herriko jaietan. Goizean goiz kalera atera, txarangan ibili eta bazkaria egiten zuten. Aurten ere, makina bat herritar bilduko gara Txiki Egunean, San Bartolome jaietako egunik handienean. Mauxitxa txarangak alaituko dizkigu kaleak eta bere doinuekin ez da dantzarik faltako. Erretratu zahar honetako jendea ezagutzeko ahaleginak egin ditugu, baina abizen batzuk falta zaizkigu. Gogora ditzagun zein diren gazte hauek:

Goian, ezkerretik eskumara: **Josepi Elorza (Kortaberri), Karmen, ezezaguna, Enrike Garate ( ) (Katalotza).**

Erdian, ezkerretik eskumara: **Consuelo Mediavilla, Modesto Larrañaga, Pili Otaegi.**

Behean, ezkerretik eskumara: **Pili, Lourdes Azkune (Ipintza), Angelines ( ).**


BIKAIN
AHOLKULARITZA

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate-aholkularitza

Tel./Faxa: 943 74 45 57
e-posta: bikain@fonocom.es

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 **ELGOIBAR**


TEMPUR
laxy
sonpura
OLDtex
MASH
%20ko beherapenak
Sakonera ezberdinetakoa eta
3 dimentsiotako profilatu
Zeta ohialez egindo.
trinkoa eta arina izan
arren berotasuna
duenean eta freskotasuna
bero egiten duenean.
akaroak saihesten ditu
eta hezetasuna ere
era naturalean
gertatzen da.
eskiusiboa, gure
egiten du: sorbalda,
Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.
LAGUNAK
24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe
San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com


Eguneroko ezusteek
ez dezaten atzerapenik
ezta produktibotasun
galerarik sortu
informatika
hirulan

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Blena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiliola 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Proiektu eta erreformak

**Bigara Erreformak**
San Frantzisko, 11-5
☎ 696 95 27 95/696 95 27 96
**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52/606 43 11 19-20
**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberri Indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com

# Jai zoriontsuak!



EAJ PNV



# San Bartolome jai zoriontsuak!

Elgoibarko Udalaren izenean

ELGOIBARKO UDALA